

# Abarak

JON TORNER

## Malet-Tardi bikotearen klasikoa

### *Reyerta en la FERIA*

Léo Malet / Jacques Tardi  
Norma Editorial (1. edizioa: 1997)  
78 orrialde, zuri-beltzean



ATSEGIN dut liburutegira joan eta *Berrienak* apaletik bi pausora, komikiari eskaintako guncan, *Reyerta en la FERIA* moduko klasikoak aurkitzea. Heldu berri diren liburuei begiratu azkarra eman ostean, denbora gehiago pasa ohi dut gustuko aleen artean saltseatzen, sarri, nobedadeekin arriskatu baino, nahiago dugulako aseko gaituela bada-kigun liburua hartzea. Oraingoan ere merezi izan du.

Léo Malet (Montpellier, Frantzia, 1909-1996) idazleak sortutako Nestor Burma detektibe pribatua da *Reyerta en la feria* komiki beltzeko bi protagonistetako bat. Pipa erretzaile amorratua, Georges Simenon (1903-1989) nobelagile belgikarrak sortutako Maigret komisarioaren antza du. Hura, ordea, Frantziako polizia judizialeko komisarioa zen eta Burma, Frantziako polizia judizialaren mesfidantza sortzen duen detektibe ipurterrea.

Bigarren protagonista nagusia 1950eko hamarkadako Paris da, zuri, beltz eta grisezko hiriburu euritsua. Jacques Tardi (Valence, Frantzia, 1946) komikigileak zehaztasunez marraztu ditu autoen faroek argizatutako eraikin eta etorbide eleganteak, berdin euriak bustitako galtzada harritsuak, Nazioaren Plazako feria ahaztu barik, noski.

Hantxe abiatzen da istorioa, Burma detektibe emakume eder baten pausoei jarraitzen hasi eta *Super zortzia* izeneko atrakzioan gizon batek eraso egiten dionean. Zergatik? Burmak ez du erantzuna berehalakoan aurkituko. Poliziak, txupa beltzeko gazte borrokazaleak, enpresari aberatsak, maitaleak, feriako artistak, 150 kilo urre eta hildakoak, hildako franko aurkituko du bidean.



Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko  
hauek ez galdu:

erdiko  
kalerara

### GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETANI

Gonbit-ixartelak astebete lehenago ekintza egingo den liburutegian:

#### ARRIAGA

- Hala bazan edo ez bazan... batzuetan soberan baino hobe falta izan. Apirilak 10, 18:00. Ipuin kontalaria. Adina: 3-6

#### IPARRALDE

- Kamishibal ipuinak. Apirilak 22, 18:00. Ipuin kontalaria. Adina: 3-5

#### HEGOALDE

- Munduko zenbait kondaira. Maiatzak 3, 18:00 Ipuinak (kamishibal). Adina: 3-6

#### ALDABE

- Gazi gezako istorioak. Maiatzak 5, 18:00. Ipuin kontalaria. Adina: 5-10

#### IBAIONDO

- Tina. Maiatzak 5, 18:00. Txotxongiloak. Adina: 5-8

### LIBURUAREN NAZIOARTEKO GUNAREN INGURUKO JARDUERA PROGRAMA

- Irakurzaletasuna eta sormen lanak bere bidetik doazenean. Ruben Ruiz eta Eider Eibar. Apirilak 20, 20:00. Gaiuri jauregia
- Maites-sua eta erotismoa euskal poesian. Josune Muñoz, Igor Estankona eta Edorta Jimenez. Apirilak 22, 20:00. Gaiuri jauregia Sarrera doan, lekuak bete arte. 19:40tik aurrera sar daiteke.

ETORRI ETA GOZATU GUREKINI



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala